

Otoitza

Eskerrak Zuri, zeruko Aita,
ona zarelako
eta Jesukristogan zure maitasuna
hain handikiro eta behin betiko
agertu diguzulako.

Bidaliezaguzu zure Espiritua,
zure neurrigabeko maitasuna,
gure artean elkarrekin bizi dezagun,
eta gure eguneroko bizitza osoa
Zuretzat esker kantu bihur dezagun.

A. Apaolaza

*(Andra Mariari, Espiritu Santuaren graziaz beteari eskeinutako
kantu batez amaitu daiteke otoitzaldia)*

5. GIDOIA ZER EGIN, ZER ITXI, ZER ALDATU? AURREKOAREN OIHARTZUNA

Eleizbarrutiko bereizketaren helburua

Otoitz eta irekitasunezko giroan, antzeman daigun alkarregaz zelan **hitz egiten deuskun Jaungoikoak** bizi dogun garai honetan, zelan agertzera emoten jakun gizarterako eta Eleizako inguruabar honetan eta **zelan erantzun deikeogun, hankak lurrean doguzala**, gure aukerak kontuan hartuta, bat egiteko dei horri.

Oharrak

- **Begiratu aurreko gidoian (4.) esandakoak**
- **Erantzunak ahalik eta bizkorren bialdu, 4. eta 5. gidoikoak batera, mesedez, azkeneko gidoia (6.) sasoiz prestatu ahal izateko.**
- **4. eta 5. gidaien erantzunak bialtzeko epea: martxoaren azkena.**

ITAUNAK¹

Orain arte aztertutakoa aurrean dogula eta Egitasmoaren helburua (periferietara, Jainkoaren bidera eta alkarren bidera urtetzea) kontuan izanik:

¹ Gogoratu hasierako oharretan esana: orain norbere inguruari begiratu batez ere.

Himnoa

Zeru-lurren egile zaran
Espiritu Santua:
Zatoz eta bete bihotzak,
piztu gugan maite-sua.

Behartsuen Aita zaitugu,
lanpean atsedena,
nahigabeen gure barrengo
poza sortuten dabena.

Zentzuari argi emonez
eta bihotzari su,
Jaun onaren irudi bizi
danok bihurtu gagizuz.

Aienatu gure etsaiak
ta arimako kalteak.
Gugan beti iraun daijala
Zuk emondako bakeak.

Aita eta Semearekin
hirutan bat zarana:
Orain hemen zaindu gagizuz,
gero eroan Zugana.

Irakurgaia (Erm 8,22-28)

Apostoluak Espirituaren eragina gogoratzen deusku. Bera da gure indarra eta babesa.

- Zer *itxi* alde batera?
- Eta elizbarrutian?

- Aurrekoetatik zerk sortzen dau bakea eta konfi-
dantza niregan, eta zerk jartzen nau bildurri edo
urduri?

3. AZPIEGITURAN

(Sakristiako zerbitzua, eliza eta patrimonioa zaintzea,
ekonomia...)

- Zer *egin barririk*?
- Zer *aldatu*?
- Zer *itxi* alde batera?

EVANGELII GAUDIUM IDAZKITIK

Eginkizun honek eskaintza eskuzabala eskatzen badu ere, hanka-sartzea litzateke eginkizun pertsonal heroikotzat hartzea, guk ezagutu eta uler dezakegunaren gainetik lan hau Berea baita nagusiki. Jesus da «lehenengo ebanjelizatzailea eta handiena». Ebanjelizatzeke edozein eratan, Jainkoarena da beti lehen urratsa, Bere lankide izatera deitu nahi izan baikintuen, eta baita bere Espirituaren indarrarekin horretara bultzatu ere. Jainkoak berak, era misterio-tsuan sortzen duena da lehenengo berritasuna, Berak goiargitua, Berak eragina, mila eratarik Berak zuzendua eta lagundua. Elizaren bizitzan beti agertu behar da ekimena Jainkoarena dela, Berak «maitatu

1. LITURGIAN

(Otoitzerako prestaketa, hizkera egokitzea, Jainkoaren Hitzaren barneratzea, bizitzarekiko lotura, domeketako eukaristian partaidetza eta parte hartzeko bideak zabaltzea, alkarte dimentsioa zaintzea, harrera...)

• **Zein da, nire ustez, Jainkoaren deia niretzat, guretzat, gure alkartearentzat, gure eliz errealitatearentzat?**

- **Zer egin barririk gure inguruan?**
- **Zer aldatu?**
- **Zer itxi alde batera?**
- **Eta elizbarrutian?**

• **Aurrekoetatik zerk sortzen dau bakea eta konfiantza niregan, eta zerk jartzen nau bildurri edo urduri?**

2. ALKARTE BIZITZAN

(Alkarteko giroa, zabal jokatzeko, antolatzeko eta erabakiak hartzeko erak, alkartearen balioak, batasuna eta pluraltasuna, komunikazioa, alkarrekin aztertzeko eta lan egiteko gaitasuna, elizbarrutiarekiko sintonia, beste batzuekin lankidetzak, ministerioak eta zerbitzuak bultzatzea, pastoral barrutia eta erabarritzea...)

• **Zein da, nire ustez, Jainkoaren deia niretzat, guretzat, gure alkartearentzat, gure eliz errealitatearentzat?**

- **Zer egin barririk gure inguruan?**
- **Zer aldatu?**

Badakigu, izan ere, izadi osoa erdiminetan intzirik dagoala orain arte. Eta ha ez ezik, geu ere bai: Espiritua lehen dohaintzat hartu dogunok intzirik gagoz geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain. Salbatuak gagoz, baina itxropenetan bakarrik. Eta itxaroten doguna begien aurrean bagegendu, hori ez litzateke itxaropena izango, inork ez dau-ta itxaroten begien aurrean daukana. Baina ikusten ez doguna itxaroten badogu, iraupenez behar dogu zain egon. Era berean, Espiritua datorkigu gure makaltasunean lagun, guk ez dakigu behar bezela otoitz egiten eta; baina Espirituak berak erregutzen dau gure alde esan ezin ahalako intziriz. Eta bihotzak aztertzen dituan Jainkoak ezagutzen dau zein dan Espirituaren gogoak, Espirituak Jainkoaren asmoen erara erregutzen dau alako fededunen alde.

Badakigu Jainkoak bera maite dabenen onerako bideratzen dituala gauza guztiak.

JAUNAK ESANA

(Isilunea, hausnarketarako; gero, Hitzak adierazotakoa komentatu daiteke taldean)

baikintuen lehenik» (1Jn 4,19) eta «Jainkoa baita, hazarazten duena» (1Ko 3,7). Uste sendo honek laguntzen digu, gure bizitza oso-osorik hartzen duen eta eskakizun handiko erronka den eginkizun honen erdian alaitasuna gordetzen. Dena eskatzen digu, baina dena eskaini ere bai, aldi berean (12).

Misio-klabeen egindako pastoraltza ez da jardunaren jardunez inposatzen diren elkarren arteko loturarik gabeko mila doktrina transmititzean itsutzen. Salbuespenik eta bazterketarik gabeko xede pastoral eta misio-estiloa onartzean, funtsezkoa hots egiten da, hori baita ederrena, garrantzitsuena, erakargarriena eta, aldi berean, beharrezkoena. Proposamena soildu egiten da, horrekin sakontasunik eta egirik galdu gabe, era horretan irmoagoa eta distiratsua bilakatuz (35). Denbora espazioaren gaintetik dago. Oinarri honek, berehalako emaitzekin itsutu gabe, epe luzeko lana ahalbideratzen du. Egoera zail eta desegokiak, nahiz errealitateak sorrarazten dituen egitasmo aldaketak pazientziaz eramaten laguntzen du. Osotasunaren eta mugaren arteko tirabira onartzeko dei bat da, denborari lehentasuna emanez. (...) Espazioa lehenestek orainean dena konponduta izan nahiaren gogo eroa ekar dezake. (...) Denbora lehenestea prozesuak hasten saiatzea da, espazioen jabe egin nahi izatea baino gehiago. (...) Gizartean bizitasuna sortzen duten ekintzak bultzatzea da konputua. Espiritua duten ebanjelizatzaileak, otoitz eta lan egiten dutenak dira. Ebanjelizatzearen ikuspuntutik ez dute balio gizarte- eta misio-konpromiso benetakorik gabeko proposamen mistikoek ezta bihotza

eraldatzen duen espiritualtasuna falta duten gizarteko nahiz pastoraltzako hitz eta jardunek ere (262).

«Misiolaria konbentzitua dago, badela dagoeneko Espirituaren eraginez pertsonengan eta herriengan itxarote bat, konturatu gabe baldin bada ere, Jainkoari buruzko, gizakiei buruzko, bekatutik eta heriotzatik askatzen duen biderei buruzko egia ezagutzeko. Kristo hots egiteko gogo beroa itxaropen horri erantzuteko uste osotik dator». Ebanjelizatze gogo beroa uste oso horretan oinarritua dago. Badugu bizitza eta maitasun altxor bat engainurik ez duena, manipulatu eta ilusioa kendu ezin duen mezua. Gizakiaren barru-barruan dagoen eta eusten eta altxatzen duen erantzuna da. Beste ezer iristen ez den tokira sartzeko gai delako, zaharkitzen ez den egia da. Gure tristura amaigabea, amaigabeko maitasunez bakarrik senda daiteke (265).

OTOITZALDIRAKO PROPOSAMENA

Sarrera

Elizbarrutiko beste hainbat talderekin batera, ibilbide berezi bat egiten gabiltza, Ebanjelioa gaur bizi eta iragaritzeko bideak bilatzen eta gaurkotzen ahaleginduz. Jainkoaren Espirituak eraginda egiten dogu hori. Berak eusten deutso gure fedeari, gure otoitzari, gure testigantzari. Beragana joko dogu bereziki gaurko otoitzaldian.